

Batu zure BIDEA.

Aurrera goaz harrera- eta inklusio-gizarte bat erreklamatzeko. Gatazka armatuen (adibidez gaur egun Ukrainan, Sirian, Yemenen, Etiopian eta munduko beste eskualde askotan), pobretze eta desberdinkeriaren, bizi-baliabideetarako sarbiderik ezaren eta klima-aldaketan ondorioz, 100 milioi pertsonak mugitu egin behar izaten dute mundu osoan.

Europako erakundeetako ordezkari **10 ESKAERA** adierazten dizkiegu, etxeetatik urrun aterpea bilatu behar duten pertsonen giza eskubideak betetzen direla bermatzeko:

10/

CAMINOS DE HOSPITALIDAD

11

bideak.hospitalidad.es

01 BAKEA SUSTATZEA

herrien arteko bizikidetzarako bide bakar gisa. Elkarrizketa eta elkar ulertzea izan behar dira munduan bake iraunkor eta sendoa bermatzeko tresnak.

02 Modu eraginkorrean BERMATZEA

Europar Batasunean asiloa eskatzeko eskubidea, baita gerratik ihes egin duten pertsonak babesteko politikak ere, aintzat hartuta, bereziki, zaurgarriagoak izan daitezkeen pertsonak. Ukrainako biztanleen adibidearekin frogatu da borondate politikoa egonez gero abegikortasun-erantzun horiek posible direla.

03 Sartu eta gelditzeko bide seguru eta legalak FINKATZEA,

eta birkokatze eta familiak berriro elkartzeko prozesuak eta bisa humanitarioak SUSTATZEA.

04 Iristen diren pertsonen harrera-sistemak eta nazioarteko babesa eskatzen dutenena HEDATZEA,

eta, hala, plaza nahikoak eta gutxieneko duintasun-baldintzak bermatzea.

05 EBn DEFENDATZEA

Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Ituna osatzen duen arau-esparru berria Europako herrialdeen arteko benetako elkartasunean eta giza eskubideekiko eta Batasunaren balioekiko konpromisoan oinarritu behar dela.

06 Sufrimendua eragiten duten migrazio-praktika zapaltzaileak

AMAITZEA,

besteak beste migratzaileen atxiloketak, barneratzeak eta itzularazte sumarioak, bai lurraldean eta bai lurreko eta itsasoko mugetan.

07 Integrazioa SUSTATZEA

kultura desberdinen aberastasunak aitortu eta baloratzen dituen aldeko prozesu gisa, nahitaezko migrazioen eta aterpearen kausak ezagutuko dituzten eta elkartasunarekin, giza eskubideekin eta abegikortasun-kultura eratzearekin konprometituta dauden herritar globalak prestatzeko.

08 Mugak gurutzatzen dituzten pertsonen BIZITZA SALBATZEA eta haien eskubideen alde borrokatzen duten erakunde humanitarioak eta pertsonak DEFENDATZEA.

09 Bizitegi- eta lan-baimenak lortu eta berritzeko baldintza eta prozedurak MALGUTZEA,

gerora sortutako irregularitasunari aurre egiteko eta gizarte-inklusioa eta aukeren berdintasuna sustatzeko, bereziki COVID-19aren ondorengo testuinguruan.

10 Garapenerako nazioarteko lankidetzak INDARTZEA,

errenta nazional gordinaren % 0,7 Garapenerako Laguntza Ofizialera (GLO) bideratuta, GLOaren % 10 laguntza humanitariora eta horren % 6 testuinguru horietako hezkuntzara. Horrela, haur eta nerabe errefuxiatu eta migratzaileei kalitateko hezkuntzarako eskubidea bermatuko zaie, herrialde eta inguruabar guztietan.